

10 **ELHUYAR**

MARTXOA 1977

R.S.V.A.P.-en Zientzi eraskina

ZUZENDARIA: *Luis Bandres*

IDAZKARIA: *Andoni Sagarna*

ZUZENBIDEA: *Círculo de San Ignacio. - San Marcial, 26, bajo. - San Sebastián*

"ELHUYAR" MATEMATIKA TALDEA

Herrigintzaren ordua jo omen du, eta ordu honetan irakaskuntza ez dirudi ahaztu beharko genukeen arloa denik. Euskal Herri batek irakaskuntza oso kontutan hartu behar bait du.

Gure arteko irakaskuntza zertxobait aztertu ondoren, ageri-agerian nabarmentzen den problema azpiegitur falta da: irakasle falta, material falta, erakunde falta, finantzabide falta eta abar; ez genuke, honekin, ezer egin ez denik inolaz ere esan nahi, baizik eta gure Herri honen irakaskuntza, gehien batean, bere eskuetatik kanpo dagoela eta egin den guztia bizi ala hil beharrez egin dela biazetatu; hala ere, eta aurrera begiratu nahi badugu, itxaropenez eta gogo betez, orain arte egindakoa jasoaz bide berrien urratsa, lanean hasteko garaia, heldu dela deritzagu.

Azpiegitura falta delarik, "sortu beharra" da gure erantzuna: Azpiegitura honen zihuratuko bait du geroaren geroa; eta azpiegitura hau sortu beharraz, nondik hasi?; gure ustez azpiegitura sendo baten oinarririk sendoena pertsona da: gure kaso honetan, irakaslea. Ondorioz, irakasleak sortzeari eta dugun preparazioa hobetzeari eman beharko diegu lehentasuna.

Ikuspegi honetatik, kurtsiloen garrantzia aipatu ere behar ez den gauza dirudi; baina, garrantzia soberan frogaturik badago ere, kalitatea frogatzeko dago eta puntu honetan lan serio baten beharra ikusten dugu. Irakaskuntzaren arlo honetan irakaslearen beharra azpimarkatu nahi badugu, bere protagonismoa bultzatu nahi genuke ere aurrez-aurre dituzten eskubidea eta eginbeharra azaldu nahian.

Azpiegitura sendo baten bigarren zutabea, materialea ikusten dugu; bigarrena bada ere, eta irakaslearen prestaera hobetzen den bitartean, egundainoko garrantzia hartzen du; era honetan ulertu beharrak daude orain arte egindako itzulketak eta egindako zenbait lan orijinal. Beren apaltasunean ere, hauk dira etorkizun hobeko baten lehenengo oinarria, dudarik gabe. Hala ere, bide berrien urratze honetan ukitu behar den beste puntua hau da: materialea sortzeko beharrari buruz dudarik ez dugun neurrian, materiale horrek irakaslea ez duela ito behar: bitarteko bat da materialea; beraz, sor dezagun zorioneko materiale hori baina bultza eta errespetu dezagun irakaslearen iniziatiba.

Atzo hazia zen eta gaur landaretxoa den ELHUYAR taldeak adar bat sortu nahi du lan honetan saiatzeko. ELHUYAR taldean, zientzi gaietan ari izaten garenez gero, Matematikaren didaktikan lan egiteko talde bat sortzeko ahalaginetan gabilta. Talde honek, lehenago aipaturiko iritzietan finkaturik, irakasleen prestaera eta material sortzea hartzen ditu helburutzat. Helburu hauk konkretatu asmoz, hona hemen urte honetan bete nahi genituzkeen ekintzak:

- Udarako kurtsilo bat antolatzea.
- Material sortzea, nahiz eta zer-modukoa behar duen oraingez zehazteko egon.
- Lankide bat liberatzea egunerdez, gure programa guzti hau aurrera eramateko.

Ez dago esan beharrik talde ireki bat dela gai honetan interesaturik dagoen edonorentzat, beste ekintzetan ELHUYAR beti izan den modu berean.

Matematikaren didaktikarako talde hau sortzean, gaur egun Matematikaren irakaskuntza jasaten ari den berriztapen giroa akuilu bat izan denik ezin dezakegu uka; zientziaren molde entziklopedikoak aspaldidanik bazterturik baldin badaude ere, ez da gauza bera gertatu zientziaren irakaskuntzan. Kezka hori zela medio sortu zen berriztapen baten gogoia eta, gaur egun borroka bizi baten erdian gaudela konturaturik, guk ere berriztapen horren alde tantoren bat eskaini nahi genuke; hitz batez, mundu guztian zehar dagoen kezka bizi hori gureganatu eta landu.

Ekintzez ugari, hitzez apal eta asmoz eta jokabidez zabal jokatu nahi dugu hasierako ordu honetan; hala izaten saiatuko da "ELHUYAR" Matematika taldea.

